ZUMARRAGA-KO EUSKAL-FÉSTAK

EUSKAL-ITZ-JOSTALDIEN EGINTZA

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Zumarragara, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa izan dan, aurten, izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiarekiñ esamiñatu ondorean aurkeztu diran moldaera guziak, zeiñen agiria egiten dan urteoroko Oroimengarriyan, irabazi dituzte sariyak, izkribatzalleen artean: On Ignazio Belaustegi, On Biktoriano Iraola eta On Marzelino Soroak, *Zumarraga-ko erri eta bere seme ospatsuben kondaira eta doayak, Ama baten negarra* eta *Ezerez ta festa* izendatzen diranakgatik. Irabazi dituzte aldeerak On Juan Ignazio Uranga, On José Artola, On Ignazio Belaustegi, On José Ganboa eta On Juan José Belaustegi-k, *Enadaen elkartasun maitatiya, Ama eta semechoa, Antiguako eleizachoaren kondaira, Mariya* eta *Ama baten zoriona,* izenzat dituztenengatik. Irabazi dituzte aipamen onragarriyak On Ramon Gelbenzu, On Felipe Arrese Beitia eta On Elías Gorostidi-k, *Legazpiren talluntzaren oñean, Arbolak* eta *Amoriyo firmia* izendatzen diranakgatik.

Musikalarien artean irabazi dituzte sariyak: On Eduardo Mokoroa, On Kándido Buenechea eta On Ildefonso Lizarriturri-k, lenbizikoak *Nere doñuak* azailkatzat duen Euskal-kanta moldaeragatik, eta azkeneko biyak *Damugabia* eta *Gura det* izentzat dituzten zortzikoakgatik.

Zumarraga-n, 1899-ko Agorraren 18-an.

Batzarrearen izenean:

Dianaguaia,
ALFREDO DE LAFFITTE.

Goarpelaria,
ANTONIO ARZÀC.

Aditzera.— Irakurtzalleen artean sariya irabazi du On Domingo Andonegi-k eta aldeera On Julian Urruzola-k.